

**OGASUN ETA FINANTZAK DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Ogasun eta Finantza	2013	116.737.229 euro
		2014	131.595.504 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Zerbitzu Orokorrak

Kodigoa 01

Generoaren garrantzia Gutxi

Aurrekontua 7.477.722

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta Departamentuaren portzentajea azken urteotan**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurotan)	11.326,84	10.607,00	10.345,00	7.477,72	-6,36%	-2,47%	-27,72%
% DPTko. AURREK. PROP.	12,04%	9,17%	8,86%	5,68%	-23,89%	-3,33%	-35,88%

Programa Ogasun eta Finantzetako Departamentuak duen aurrekontuaren %5,68 da.

Programak jasotzen dituen helburuak, kolektiboak eta jarduerak

Helburua: Departamentuari esleitutako berdintasun planaren neurriak ezartzea

Kolektiboak: Administrazioaren langileei zuzendutako jarduera. Hiritarrengan zeharkako eragina du bakarrik.

Jarduerak: Plana burutzeko lanen inguruko proposamen eta jarraipen bilerak koordinatzea.

Generoaren ikuspegia kontuan hartuz Departamentuko aurrekontu programen analisia koordinatzea .

Kontratazio prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.

Diru laguntzak emateko prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.

Departamentuaren komunikazio ikus-entzunezkoetan eta idatzietan genero hizkuntza berrikustea.

Sexua dela eta sakabanatutako datuen bilketa proposatzea.

Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa proposatzea, beharrezkoa den tokian.

Analisi kuantitatiboak generoaren arabera

Goian esan den bezala, programak ez du eragin zuzenik hiritarrengan, administrazioiko langileengan baizik. Departamentuari esleitutako planaren neurrien % 100 burutu nahi da 2014. urtean



Analisi edo gogoeta kualitatiboa

Departamentuari esleitutako Foru Aldundiko Berdintasun Planaren neurri zehatzak burutzen diren programetan egiten da analisi edo gogoeta kualitatiboa.

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Ogasun eta Finantza	2013	116.737.229 euro
		2014	131.595.504 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa
Kodea	02
Generoaren garrantzia	Baxua
Aurrekontua	992.575

1. taula

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa, eta portzentajea Departamentuarentzat, azken urteotan.

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokotan)	1.068,40	1.044,98	1.016,76	992,58	-2,19%	-2,70%	-2,38%
DEPTko AURREK PROP. %	1,13%	0,91%	0,87%	0,75%	-18,90%	-4,76%	-13,40%

Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduketak

Programaren amaierako hartzaileak pertsona fisikoak zein pertsona juridikoak dira, baita haien ordezkariak ere. Alde horretatik, ikusi da beharrezkoa dela datu bilketa bat egitea, sexuen arabera banatua, Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan erreklamatzeko duten pertsonen dagokienez.

Horregatik, ezarri den helburua da aurkeztu diren 1058 erreklamazioak generoaren ikuspegitik aztertzea. Honela banatzen dira erreklamazioak gaiaren arabera:

TRIBUTUA	
ERRENTA	354
BEZa	97
SOZIJETATEAK	56
OINORDETZAK ETA DOHAINTZAK	33
ESKUALDAKETAK ETA EGINTZA JUR. DOKUM.,	41
BEREZIAK: FABRIKAZIOA	34
EZ-EGOILIARRAK	3
JOKOAREN GAINEKO ZERGAK	3
PARTIKULARREN ARTEAN	1
PROZEDURA	2
BERANDUTZA INTERESAK	10
ZEHAPENAK	152
ERANTZUKUIZUNA BESTERENTZEA	25
ZERGA-BILKETA	140



ASKOTARIKOAK	6
ZEHAZTU GABEAK	10
ITZUNDUAK, GUZTIRA	967

TRIBUTUA	
JEZa	25
OHZ	17
HIRI-LURREN BALIO GEHIK.AREN GAINKO ZERGA	3
ERAIKUNTZAK INSTALAZIOAK ETA OBRAK	4
TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK	1
UDAL TASAK	31
BESTE BATZUK	1
ZERGA-BILKETA	3
ASKOTARIKOAK	1
ZEHAZTU GABEAK	5
UDAL ZERGA, GUZTIRA	91

Helburu hori beteko bada, beharrezkoa dugu erremintak instalatzea erreklamazio ekonomiko-administratibo bat pertsona fisikoen kasuan zenbat gizonezko eta zenbat emakumezko aurkezten duten kuantifikatzeko. Orobat, jakin beharra dago zenbat pertsona juridikok aurkezten duten erreklamazioa ordezkari bidez (gizona izan zein emakumea izan).

Bestalde, administrazio elektronikoaz baliatu ahal izatea aurrerapen handia da hainbat tramitetara iristeko, eta haien artean erreklamazio ekonomiko-administratiboaren aurkezpena dago, gure ustez generoaren ikuspegitik ere aztertu beharrekoa.

Barruko esparruari dagokionez, helburua da administrazio prozeduretan genero-ikuspegia ezarri, finkatu eta horren segimenduan egiteko lanean aurrera egitea. Horretarako, lortu behar da Auzitegiko langileek berariazko prestakuntza handiagoa izatea berdintasun gaietan.

Langile plantillaren osaerari dagokionez:

SEXUA	SAILKAPEN TALDEA							
	PRESIDENTEA	IDAZKARIA	BOKALAK	A 1 – GOI TEKNIKARIA	TAG	C1 - ADMINISTRARIA	C2 – Administrari laguntzailea	GUZTIRA
Emakumeak			2	2	1	2	1	8
Gizonak	1	1	2	2			1	7
GUZTIRA	1	1	4	4	1	2	2	15

Auzitegiak Batzar Osoan edo Salen bidez jarduten du, baita banaka ere edozein kideren bitartez. Batzar Osoko kideak dira presidentea, idazkaria eta izendatutako bokal guztiak. Erreklamazio Aretoak honako hauek dira:



SEXUA	ZERGA ITUNDUEN ERREKLAMAZIO SALA			
	PRESIDENTEA	IDAZKARIA	BOKALAK	GUZTIRA
Emakumeak			2	2
Gizonak	1	1	2	4
GUZTIRA	1	1	4	6

SEXUA	UDAL ZERGEN ERREKLAMAZIO SALA			
	PRESIDENTEA	DAZKARIA	BOKALAK	GUZTIRA
Emakumeak			1	1
Gizonak	1	1	2	4
GUZTIRA	1	1	4	5

Banaketa hori aztertzen badugu sailkapen taldearen eta okupazioaren arabera, zuzendaritza eta buruzagitza postuetan gizonetzkoak dira nagusi, teknikari postuetan emakume gehiago daude, eta C1 eta C2 taldeetan ere emakumeak nagusitzen dira.

Azterketa kuantitatiboa, generoaren arabera

Une hauetan ez dugu daturik esateko zer proportziotan aurkezten duten emakumeek eta gizonen erreklamazio ekonomiko-administratibo bat.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Ez daukagu datu kuantitatiborik azterketa kualitatiboa egin ahal izateko.

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Ogasun eta Finantza	2013	116.737.229 euro
		2014	131.595.504 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Zerga Administrazioa
--------------	----------------------

Kodea	10
--------------	----

Generoaren garrantzia	Ertaina
------------------------------	---------

Aurrekontua	19.375.889
--------------------	------------

1. taula

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta hori Departamentuarentzat zer portzentaje den, azken urteotan.

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	22.186,34	22.690,01	21.481,30	19.375,89	2,27%	-5,33%	-9,80%
% DPTko. AURREK. PROP. %	23,59%	20,26%	18,40%	18,40%	-14,12%	-9,18%	0,00%

Zerga Administrazioa programaren helburuak zergadunaren kudeaketa eraginkorrari lotuta daude, barruko alderdiei nahiz kanpoko alderdiei dagokienez.

Nahiz eta ez sortu iruzurraren aurkako fitxa berezitu bat, Zerga Egiatapenerako Planari buruzko informazioa jasota dago, zehazki Administrazioak PFEZean egindako likidazioei buruzkoa.

Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduerak

Programa; genero ikuspuntutik egokiagoak diren jarduketara lerroak:

Lehendabiziko hiruak: 1.- Zergadunarentzako arreta zerbitzu integrala hobetzea.

2.- Zerga obligazioak nork bere borondatez betetzea sustatzea.

3.- Egokitzea Herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoari buruzko Legea.

Jarduketa lerro hauek pertsonekin zuzeneko harremana dutenez, merezi dute bereziki aztertzea.

Era berean, Zerga Egiatapenerako Plana (Ikuskaritza Plana barne hartzen du) kontuan hartzen da, iruzurraren aurkako tresna nagusia baita.

**Azterketa kuantitatiboa, generoaren arabera**

1. PFEZaren zergadunen portzentajea sexuaren arabera (oinarri ezargarriaren titularraren arabera sailkatuta):

	2009	2010	2011
Emakumeak	%42,70	%43,80	%44,40
Gizonak	%57,30	%56,20	%55,60

2. PFEZeko **lan etekinak**: kopurua eta batez besteko zenbatekoa:

	2010 (kop.)	2010 (€)	2011 (kop.)	2011 (€)
Emakumeak	149.860	18.239 €	153.287	18.560 €
Gizonak	195.567	25.772 €	195.393	26.479 €

3. PFEZeko **jarduera ekonomikoen etekinak**: kopurua eta batez besteko zenbatekoa:

	2010 (kop.)	2010 (€)	2011 (kop.)	2011 (€)
Emakumeak	16.261	11.875 €	16.277	11.273 €
Gizonak	29.160	13.231 €	28.379	13.208 €

4. PFEZeko **aurrezpenaren oinari likidagarria**: kopurua eta batez besteko etekina:

	2010 (kop.)	2010 (€)	2011 (kop.)	2011 (€)
Emakumeak	158.803	2.313 €	156.426	2.644 €
Gizonak	200.055	2.154 €	192.399	2.633 €

5. **Ondare Zerga**: kopurua eta batez besteko ondarea:

	2011 (kop.)	2011 (€)	2012 (kop.)	2012 (€)
Emakumeak	3.576	1.738.794 €	3.599	1.828.285 €
Gizonak	3.002	1.753.988 €	3.020	1.780.324 €

(*) 2012 : behin-behineko datuak

6. Beren kontura aritzen diren zergadun langileen portzentajea (PFEZeko jardueren eranskina):

	2009	2010	2011
Emakumeak	36,60%	36,10%	37,20%
Gizonak	63,40%	63,90%	62,80%

7. **Eskualdaketen** Zergaren zergadunen portzentajea (60T eredia, eskuratzailerak):

	2010	2011	2012
Emakumeak	%46,70	%45,10	%45,80
Gizonak	%53,30	%54,90	%54,20

8. **Matrikulazio** Zergaren zergadunen portzentajea:

	2010	2011	2012
Emakumeak	%31,40	%29,80	%30,70
Gizonak	%68,60	%70,20	%69,30

9. **Zerga Egiaztapenerako Plana:** Administrazioak PFEZean egindako likidazioak ⁽¹⁾

PFEZaren GUZTIZKO DATUAK (1. TAULA)

	LIKIDAZIOEN % / O.L. AITORTUA	LIKIDAZIOEN % / K.L. AITORTUA
	Emakumezkoa	0,16
Gizonezkoa	0,21	1,26

LIKIDAZIOA DUTEN ZERGADUNEN DATUAK (2. TAULA)

	LIKIDAZIOEN % / O.L. AITORTUA	LIKIDAZIOEN % / K.L. AITORTUA
	Emakumezkoa	6,37
Gizonezkoa	7,64	39,78

KONPARAZIOA: LIKIDAZIOA / GUZTIRA AITORTUA (3. TAULA)

	KOP.	O.L.	K.L.
Emakumezkoa	1,66	2,56	3,17
Gizonezkoa	2,10	2,78	3,16

Aurreko datuei buruz:

1. Proporzioan, emakumeen aitortpen gutxiagotan daude likidazioak (emakumeen aitortpenen %1,66an likidazioa dago; gizonei dagokienez, aitortpenen %2,10ean) (3. taula)
2. Geroagoko likidazio bat duten gizonen aitortpenen oinarri likidagarria⁽²⁾ pixka bat handiagoa da, gizonen oinarri likidagarri osoaren aldean, emakumeena baino (%2,78 eta %2,56) (3. taula)

3. Likidazioa duen kuota likidoaren⁽³⁾ proportzioa antzekoa da gizon eta emakumeen artean (%3,16 eta %3,17) (3. taula)
4. Emakumeen aitortpenen likidazioak jatorrizko aitortpenen kuota likidoaren %36,40 da. Gizonen aitortpenetan, aldiz, portzentaje hori bera %39,78 da (2. taula)
5. Aurrekoaren ondorioa da: nahiz eta emakumeen artean likidazioen proportzioa txikiagoa izan, berrikuspenen emaitzak aztertzean, antzematen da ia ez dagoela diferentziarik generoen artean.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Oraindik ere beharrezkoa da **sexuaren arabera bereizitako datuak** biltzea Zerga Administrazioaren zerbitzuen erabiltzaileen inguruan. Halere, sexu aldagaia jasotzen ari da bai errenta aitortpenetan eta bai zerga bulegoek emandako zerbitzu batzuetan (bereziki aplikazio berrietan). Horri esker, balizko joera sozialak antzeman ditzakegu, herritarrek Zerga Administrazioarekin duten harremanean.

Bestetik, **Administrazio Elektronikoaren erabilera** sustatzea urrats handi bat da zergadunei tramiteak errazteko. Horrek bereziki eragiten du emakumeen kasuan, ordainpeko lana eta etxeko lana (seme-alaben eta adinekoren zaintza) bateratzen baitute.

⁽¹⁾ Likidazioak: Administrazioaren egiaztapen lanen ondorioz sortutako kuota berriaren gutzitakoa.

⁽²⁾ Oinarri Likidagarria: Oinarri zergagarriari (Etekinen garbien gutzitakoa +/- ondare irabaziak) PFEZaren Foru Arauan aurreikusten diren murrizketak (batera aitortzeagatik, BGAE eta pentsio planei ekarpenak egiteagatik, e.a.) kendu ostean lortzen dena.

⁽³⁾ Kuota likidoa: Zergaren kuota osoari subjektu pasiboari dagozkion kenkari aplikagarriak kendu ostean gelditzen den kuota garbia.

OGASUNA ETA FINANTZAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Ogasun eta Finatza	2013	116.737.229 euro
		2014	131.595.504 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Aurrekontuak eta Finatzak

Kodigoa 20

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 3.115.656

1. Taula
Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	3.697,18	3.777,29	3.526,45	3.115,66	2,17%	-6,64%	-11,65%
% DPTko. AURREK. PROP. %	3,90%	3,31%	3,02%	2,37%	-15,28%	-8,62%	-21,62%

Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduerak

Programa honen helburuetariko bat da aurrekontuetan generoaren txertaketa bultzatzea.

Programak Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrekontu propioaren %2,37 hartzen du, baina garrantzikoa da aurrekontuetan generoa txertatzea bultzatzeko eta koordinatzeko duen izaera instrumentalagatik.

Nabarmentzekoa da bultzada eta koordinazio lan honetan hautatutako programetako arduradunen eta Euskal Herriko Unibertsitateko kolaboratzaileen dedikazioa.

Helburua: genero ikuspegia kontuan izatea aurrekontuak prestatzeko garaian.

Ekintzak:

- Aurrekontu politika genero ikuspegitik aztertzeko prozesuan parte hartzea.
- Genero ikuspegia aurrekontuan aplikatzeko tresnak 2015ko aurrekontuaren jarraibide teknikoetara eramatea.
- Genero eragina 2015ko aurrekontuetan ebaluatzeko txostena prestatzea.
- Genero eragina 2013ko Kontu Orokorrean ebaluatzeko txostena prestatzea.



Barne izaera eta izaera instrumentala duenez, hartzaile hauek ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak
- Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoa
- Merkataritzako foru sozietateak (Bidegi, Izfe, Itten)
- Programa kudeatzen duten langileak beraiek, gaian trebatzen eta sentsibilizatzen diren heinean.
- Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Programak ez du herritarrengan zuzeneko ekintzarik. Hurrengo datuak aurrekontuko programak genero ikuspegitik aztertzeko prozesua txertatzeari buruzkoak dira.

	2011 (2012 AURRREK.)		2012 (2013 AURRREK.)		2013 (2014 AURRREK.)	
	Programa kopurua	Programak guztira %	Programa kopurua	Programak guztira %	Programa kopurua	Programak guztira %
Programa egokiak	69	93,24%	71	93,42%	71	94,67%
Aztertutako programak	15	21,74%	33	46,48%	71	100,00%

Aztertutako programen zenbatekoa 2013an guztira 664,3 milioi euro da, departamentuen kudeaketa aurrekontuaren %99 eta aurrekontu propinarenean %88.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Azterketak adierazten du prozesua genero ikuspegitik egokitzat sailkatutako programa guztiak 2014 aurrekontuko ebaluazio txostenean txertatzeko ezarritako helburua kontuan izanda gauzatu dela.



OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA Ogasun eta Finantza

2013 116.737.229 euro

2014 131.595.504 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Zerga eta Finantza Politika

Kodigoa 30

Genero
Egokitasuna Handia

Aurrekontua 1.645.069

1. Taula

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea (*)

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurotan)	1.764,86	1.708,45	1.642,18	1.645,07	-3,20%	-3,88%	0,18%
% DPTko. AURREK. PROP.%	1,86%	1,50%	1,41%	1,25%	-19,73%	-5,92%	-11,13%

(*) Departamentuaren aurrekontu propioarekin egiten da konparaketa, hau da, erakundeekiko konpromisoak kenduta.

Programaren **garrantzi ekonomikoa**, ordea, gainontzeko programetan ez bezala, sarreren aurrekontu aldetik, bai eta gastu fiskalen aurrekontuen aldetik neur daiteke, alde honetatik eragiten baitu populazioaren gainean.

2. Taula

Sarreren aurrekontuaren bilakaera (Itundutako zergen aurrekontua)

2012	2013	2014	13/12	14/13
3.837.736.300	3.773.075.820	3.960.818.960	-1,7	4,9

eurotan

3. Taula

Gastu fiskalen aurrekontuaren bilakaera

2012	2013	2014	13/12	14/13
1.955.855.000	1.739.635.029	1.776.713.011	-11,1	2,1

eurotan

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Egitekoa: Zerga alorreko araudia sortu, eta berari buruzko aholkularitza eman. Zerga eta finantza politikaren ildo nagusiak definitu, zerga sistema ekitatiboagoa eta banakorragoa izan dadin, beti ere genero ikuspegia kontuan hartuta. Zentzu honetan, gastu fiskalen bidez, besteak beste, gizartean dauden desberdintasunetan eragin daitekeela aipatu behar da.

Nori zuzentzen zaion: Zerga politika populazio osoari zuzentzen zaio, pertsona fisiko nahiz juridikoei. Gure kasuan, hala



ere, eragiteko gaitasun handiagoa dugu zerga zuzenen aldetik (BEZan araudia Estatutik baitator, esaterako) eta, hau dela eta, irabaziak lortzen dituen edo/eta ondare pilaketa handia duen populazio taldean gehiago eragin dezakegu zuzenki, nahiz eta gainontzeko populazio zatiaren bizitza baldintzetan ere zeharka eragin (kenkariaren aplikazioz zenbait jarduera sustatuz, esaterako).

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

A) ADIERAZLE NAGUSIENEN DIAGNOSIA

laz bezala, Gipuzkoako gizartearen generoari buruzko diagnostia egin ahal izateko, zenbait adierazle esanguratsu batu ditugu (PFEZ aitorpenetatik ateratakoak):

1) Emakumeen eta gizonen batez besteko errenta eta zerga tasa nominala eta efektiboa

	Batez besteko errenta (euroak)			Bariazioa	
	2009	2010	2011	10/09	11/10
Emakumeak	15.468	15.161	15.604	-%2,0	+%2,9
Gizonak	25.865	26.058	26.193	+%0,7	+%0,5
Emak/gizon arteko arraila	%40,2	%41,8	%40,4	+1,6p.p.	-1,4p.p.

	Batez besteko tasa nominala			Batez besteko tasa efektiboa		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011
Emakumeak	24,6	25,1	25,1	13,5	14,7	14,6
Gizonak	26,0	26,4	26,4	16,2	17,5	17,7

2011 ekitaldian emakumeen batez besteko errenta hazi egin da, 2010eko jaitsiera gaindituz. Gizonena ere handitu egin da, baina oso arinki, ondorioz emakume eta gizonen arteko arraila 1,4 portzentaje puntutan murriztu delarik. Orotara, emakume eta gizonen arteko aldea, PFEZaren arabera kalkulaturako errenta mailari dagokionez, oso handia da (gizonek baino %40 gutxiago jasotzen dute). Alde nabarmen hau azaltzen duten arrazoi nagusiak ondokoak dira: Lehenik eta behin, emakumeen okupazio tasa baxuagoa da, lan merkaturatze prozesua oraindik ematen ari da. Bestalde, lanaldi partzialerako joera handiagoa dute: zaintza eta etxeko lanen ardura beren esku batik bat egonik, oraindik ere, ordaindutako lanerako denbora murriztagoa dute gizonen aldean. Azkenik, eta aurrekoarekin lotuta, enpresetako ardura postuetan emakume gutxi ikus daitezke, hau da, promoziorako aukera gutxiago dituzte: etxeko esparruari dedikazio handiagoa eskaintzen diote gizonen aldean eta honek, besteak beste, zenbait ardura postuk eta goi karguk eskatzen duten denbora inbertsioa galarazten die.

Zerga tasei dagokienez, gizonen kasuan tasa efektiboa igo egin den bitartean emakumezkoenak behera egin du, bi kasutan tasa nominalak mantendu egin direlarik. Honetan zerikusia izan du, dudarik gabe, zenbait kenkariaren aplikazioan emakumezkoek duten pisua erlatiboki handiagoak. Honela, emakumeek kuota osoaren %36,1 hartzen dutela jakinda, jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkariaren %58a, langabetu eta pentsiodunen kenkariaren %49,2a, eta adineko mendekoen kenkariaren %46,5a aplikatzen dute. Ondorioz, kuota likidoan duten pisua %33ra jaisten da.

2) Kenkari desberdinen aplikatzea

	2010 eta 2011an aplikaturako kenkariaren portzentajea				
	Emakumeak		Gizonak		Arrailaren hobekuntza
	2010	2011	2010	2011	Aldak. 11 /10
Oinarri likidagarriaren (orokorra eta aurrezkiarena) g/ pisua	37,1	37,3	62,9	62,7	+0,2



Ohiko etxebizitza eskuratzea					
Erosketa, birgaiketa	39,1	39,5	60,9	60,5	+0,4
Alokairua	43,3	42,2	56,7	57,8	-1,1
Mendetasunaren kenkaria	45,5	46,5	54,5	53,5	+1,0
Ondorengo ahaideen kenkaria	38,5	39,5	61,5	60,5	+1,0
Sindikatuaren aldeko ekarpenak	36,0	36,7	64,0	63,3	+0,7

Oinarri likidagarriaren gainean emakumeek duten pisua arinki hazi da 2011an, 2010eko joerarekin jarraituz (0,3 p.p. gehiago 2010ean, 0,2 p.p. 2011an).

Hori horrela, kenkariari dagokionez, emakumezkoek gizonezkoekin zuten arraila txikitu egin da kenkari nagusienetan.

Nabarmenezkoa da, kasu guztietan (sindikatuaren aldeko ekarpenen kasuan izan ezik) emakumeek kenkari portzentaje altuagoa erakusten dutela beraien oinarriaren gaineko pisua baino. 2011 ekitaldian, hala ere, ikus daiteke alokairuaren kenkarian gizonekiko arraila handitu dela, etxebizitza erosketaren kenkarian txikitu egin den bitartean. Hau da, badirudi gizonezkoek hein handiago batean jo dutela alokairua, 2010arekin alderatuz, jakinik gainera kenkari honetan aplikatutako zenbatekoa %7,7 hazi dela epe berean. Erosketari dagokion kenkaria ere handitu egin da %1,1 aurreko ekitalditik hona, aurreko ekitaldietan ez bezala, eta aipatu beharra dago emakumezkoen pisua 0,4 p.p. handitu dela gainera. Badirudi, beraz, arraila txikituz doala, ziurrenik banakako aitortpenak ugaritzen ari direlako eta, hauen barne, emakumezkoen aitortpenen kopurua ere handiagoa delako.

3) Baterako aitortpenak

Baterako aitortpenak % kopuru osoaren gainean	
1994	37,3
2000	30,4
2004	27,7
2010	21,1
2011	20,7

Baterako aitortpenak urtez urte garrantzia galduz doaz, aurreko taulak erakusten duen moduan. 2011 ekitaldian ere joera hau mantentzen da, iazko aldean 0,4 p.p. jaitsi baita aitortpen hauen pisua. Bilakaera honen arrazoi nagusia da emakumeen lan merkaturatze progresiboa: 16-64 urte bitarteko Gipuzkoako biztanleriaren okupazio tasari erreparatzen badiogu (Eustat-en arabera), emakumezkoek beraien maximoa lortu dute 2011an, %63,2 iritsiz.

Aztertutako adierazleek, oro har, 2011 ekitaldian datuen hobetze bat islatzen dute. Alde batetik, batez besteko errentak gora egin du emakumeen kasuan, gizonezkoekin zuten arraila oraindik ere %40 ingurukoa bada ere. Bestetik, okupazio tasak gora egin du 2011an, gizonezkoenak behera egin duen bitartean. Honez gain, gastu fiskalak emakumei onura handiagoa ekarri die proportzionalki 2010arekin alderatuta (kenkarietan beraien pisua handitu baita, kasu gehienetan) eta, bestalde, ezin ukatu dezakegu emakumearen lan merkaturatzea errealitate nabarmena dela, baterako aitortpen kopuruaren pisua ia erdira jaitsi baita azken 15urtetan.

B) PROGRAMAN EGINDAKO JARDUKETAK

Adierazleek erakusten duten egoera kontutan hartuta, **programaren barnean egindako jarduketak** aztertuko ditugu.

1) Zerga araudia aldatzeko edo berria sortzeko proiektuen genero eraginaren azterketak.

2012ko urritik 2013ko iraila bitartean, 3 proiektuen zerga-bilketa eta genero eragina aztertu da. Hauetatik, batean proiektuak eraginik edukiko ez zuela ondorioztatu da, beste batean eragina positiboa izango dela esan da eta, azkenik, proiektu baten eragina ondorioztatzerik ez dugu izan. Eragin hauek aurreikusitako dira:



Araudi proiektuen genero eraginaren txostena	Eraginik ez	Eragin positiboa	Eragin negatiboa	Ezin da jakin
13/2012 Foru Araua, abenduaren 27koa, zenbait zerga aldaketa onartzen dituen (1) (13/2012 FA. GAO, 2012.12.28)	x			
5/2013 Foru Araua, uztailaren 17koa, zerga iruzurraren aurkako neurriari, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa (2) (5/2013 FA. GAO, 2013.07.22)		+		
1/2013 Foru Dekretu Araua, otsailaren 5koa, balantzeak eguneratzeari buruzkoa (1/2013 FDA. GAO, 2013.02.07)				?

(x) Ez du eraginik (+) Eragin positiboa du (-) Eragin negatiboa du (?) Ezin da ondorioztatu nola eragingo duen

(1) Aztertutako neurriak neutralak dira genero eraginaren ikuspuntutik. Hala ere, deflaktazioak gizonezkoie mesede handiagoa egiten die, PFEZaren izaera progresiboa baita eta hauen errentak altuagoak izanik, gehiago eragiten baitie (bai tarifaren aplikazioan, bai kerkarien aplikagarritasun aldetik ere).

(2) Aztertutako neurriak positiboak dira genero eraginaren ikuspuntutik, izan ere, proportzionalki gutxiago eragiten dute emakumeengan. Beraz, aurreikusten dena da zerga ordaindu ondorengo errenta erabilgarriaren banaketan dagoen ezberdintasuna txikiagotu egingo dela.

2) Aurrekontu proiektuarekin batera doan Generoari buruzko Txosten Exekutiboa egitea.

2012an lehen aldiz aurrekontu proiektuari erantsi zaion Txosten Exekutiboa egin da, bertan aztertu direlarik aurrekontuko programa ezberdinen bidez nola eragin daitekeen gipuzkoarron, emakume nahiz gizonon, bizi kalitatearen esparru desberdinengan.

Analisia, bestalde, populazio talde desberdinengan nola eragiten den zehaztuta egin da: Adinekoak / Helduak / Haur eta nerabeak / Behar bereziak / Populazio osoa

Bestalde, Foru Aldundiko langilegoaren azterketa egiten da, sexuka aztertuz: bere osaera (saikapen taldeetan, burutzen jabetzetan eta kontratu motaren arabera), lana eta familia uztartzeko neurrien erabileraren arabera (lanaldi murriztuak, eszedentziak,...) eta, azkenik, departamentu bakoitzaren berezitasunen arabera nola banatzen diren lanpostuak, lanpostu feminizatuak edo maskulinizatuak daudela ohartaraziz (esaterako, suhiltzaile, basozain, bidezain, e.a. denak gizonak, gizarte zerbitzuetako langileak, administrariak, e.a. gehienak emakumeak, ...)

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

1) BALORAZIOA:

Egindako analisi kuantitatiboa kontuan edukita, ondoko balorazioa egin dezakegu:

Zerga araudiaren bidez pertsonen bizi kalitatearen esparru desberdinengan eragin daiteke. Bereziki: diru sarreretan, zaintzen arloan, soldatapeko lanerako sarbidean, etxeko esparruan, hezkuntzan eta osasunean.

Iaz planteatu ziren bi arlo nagusiei buruz (ERRENTA MAILA, batetik, eta LAN ERREPRODUKTIBOA -etxeko lanak, zaintza lanak,...-, bestetik) hausnarketa desberdinak egin dira, baina neurri konkreturik ez da hartu.

Programaren helburuei dagokienez, esan beharra dago zerga araudiaren arloan zenbait neurri berri onartu direla, hala nola, zerga iruzurrari aurka egitekoa, zergen aplikazio justuago eta berdina bat eragingo duena.

2) ETORKIZUNERAKO HELBURUAK ETA EGITEKOAK:

Aipatutako bi esparru nagusiei (DIRU SARRERAK eta LAN ERREPRODUKTIBOA) buruzko azterketa bultzatuko da:



Konkretuki, bi esparruak uztartzen dituen kontzeptu baten inguruan hausnarketa bultzatu nahi da II Berdintasun Planaren barruan, zehazki ogasun departamentuari dagokiona: zerga erreproduktiboarena. Kontzeptu honen baitan zera lortu nahi da: emakumezkoek egindako saritu gabeko zainketa lan, ikusezin eta errekonozimendu gabekoei duten balioa ematea. Jardunaldi batzuk egitea ere proposatu da “Fiskalitate progresiboa eta genero isuriak” izenekoa, oraindik data zehatzik gabekoa, ondorengo gaiak jorratuko lituzkeena:

- Kapitala lanerantz bideratzea.
- Zerga zuzenen aldeko apustua, zeharkako zergen ordainetan.
- Eskubide fiskalen banakatzea
- Zerga edo tasa erreproduktiboak ezartzearen aukera aztertzea

Bestalde, iaz planteatu zen moduan, gainontzeko departamentuekin hartu-emanak hasi ditugu. Esaterako, gizarte politikako departamentuarekin batera herritarren oinarriko errentaren bidegarritasunari buruzko azterketa bat egiten hasiak gara. Emakume eta gizonen arteko errenta mailan dagoen aldea ikusita, zentzu horretan hartutako pausuak oso garrantzitsuak izan daitezke. Momentuz, Gipuzkoako familien errealitate soziala eta ekonomikoa ezagutu behar da; eta horretarako PFEZko zenbait datu aztertuko dira. Lortzen diren emaitzak gizarte politikako departamentuaren politiken norabidea finkatzen lagunduko du.

Gure helburuak kuantifikatze aldera, ondoko adierazleen bilakaera planteatzen dugu:

	ADIERAZLEAK			HELBURUA	
	2009	2010	2011	2012	2013
Oinarri likidagarriaren (orokorra eta aurrezkiarena) g/ pisua - Emakumeak	%36,8	%37,1	%37,3	%37,5	%38,0
Ohiko etxebizitza eskuratzeko kenkariaren guztizkoan ALOKAIRUAren kenkariak duen pisua	%13,0	%15,0	%15,9	%17,0	%18,0
Gizonak	%14,9	%17,2	%17,5	%19,0	%20,0
Emakumeak					
Errenta mailaren dispersioa -GINI indizea*- PFEZko Oinarri likidagarri osoa- kuota likidoa	0,3647	0,3645	0,3705	0,3650	0,3600

Oro har, gizartean ekitatea eta birbanaketa ahalbidetuko duten neurrien azterketa bultzatuko dugu. Horretarako zergen progresibitatea helburu nagusienetakoa da. Krisia hasi zenetik, progresibitatea sustatzeko neurriak hartu dira (horien artean, ondarearen gaineko zergaren berrezarpena, ondoren aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergak ordezkatu duena). Bestalde, emakumezkoen oinarri likidagarriaren gaineko pisua poliki-poliki haziz doa eta etorkizunerako joera honi eutsiko diola uste da. Etxebizitza eskuratzeko kenkariari dagokionez, alokairua garrantzia irabaziz doala ikusten da, baina gure helburuak apaldu beharrean aurkitu gara, aldaketa motelago ematen ari baita aurreikusitakoa baino.

GINI indizeari dagokionez, ikus dezakegu azken ekitaldian datuak okerrera egin duela: errenta erabilgarrien arteko dispersioa handitu egin da 2010etik 2011ra. Kontuan izanda 2011ko ekitaldirako ez dela arau fiskalean aldaketa esanguratsurik egon, ondorioztatu daiteke okertze hori bizi dugun krisi ekonomikoaren eraginez gertatu dela. Jakinik emakumeen errenta maila gizonena baino askoz txikiagoa dela, GINI indizearen jaitsiera bat desiragarria litzateke, honek adieraziko bailuke gizartean dagoen desoreka gutxitzen ari dela, berdintasunaren mesederako. Hori horrela, 2012 eta 2013rako gure helburua litzateke indizearen jaitsiera ematea.

**GINI indizeak gizartean dagoen desberdintasuna neurtzen du, Otik gertu dauden balioek berdintasun osoa adierazten dutelarik eta 1etik gertu daudenek erabateko desberdintasuna. Guk aukeratutakoak (PFEZko oinarri likidagarria zerga ordaindu ostean), zehazki, errenten mailen arteko desberdintasuna neurtzen du. Kontuan eduki behar da, guk kalkulaturako indizea ez datorrela bat estatistika atarietan herrialde desberdinentzat ematen den GINI indizearekin, metodologia desberdinak erabiltzen baitira. Ez dira alderagarriak, beraz.*

OGASUN ETA FINANTZETAKO DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTUA Ogasuna eta Finantza

2013 116.737.229 euro

2014 131.595.504 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA
Izena Zerbitzuak eta Zerga Heziketa

Kodea 40

Genero egokitasuna Ertaina

Aurrekontua 10.003.270

1. taula
Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)				10.003,27			
% DPTko. AURREK. PROP. %				7,60%			

Programa berria da eta 2014an sortu zen; Ogasun eta Finantza Departamentuko aurrekontu popioaren %7,6 da.

Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduerak

1. helburua: Berdintasunaren Planaren barruan departamentuari esleitutako neurriak gauzatzea.

Hartzaileak: Administrazioiko langileak, zuzenean; eta zeharka, herritarrak.

Jarduketak: - Plana proposatu eta koordinatzeko bilerak zuzentzea.

- Aurrekontuak genero ikuspuntutik prestatzeko bileretan laguntzea eta bultzatzea.

- Intranetean eta departamentuko webean argitaratzea departamentuak berdintasun arloan egiten dituen txostenak.

2. helburua: herritarren artean kontzientzia zibiko-tributario handiago bat sustatzea.

Hartzaileak: DBHko 4. ikasturteko ikasleak.

Jarduketak: - DBHko 4. ikasturtetik aurrera zerga heziketako modulu bat garatzea.

- Modulua lau ikastetxetan martxan jartzea.

Azterketa kuantitatiboa, generoaren arabera

Programa berria da. Adierazi denez, lehen helburuak ez du jarduketa zuzeneko bat herritarrei zuzenduta. 2014an departamentuari esleitutako planaren neurri guztiak gauzatu nahi dira.

Bigarren helburuari dagokionez, parte hartzen duten ikasleen kopurua jaso behar du jarduketak.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Lehen helburuari dagokionez, planaren neurriak neurri konkretuen exekuzioa jaso duten programetan sustatu, aztertu eta kualitatiboki hasunartzen dira.



Bigarren helburuari dagokionez, neurriak helburu jakin horretan duen eragina (herritarren artean kontzientzia zibiko-tributario handiago bat sustatzea) ez da erraza neurtzen, kontzientzia zibiko-tributarioa handitzeko neurriak askotarioak baitira eta kontzientziario handiago horren efektua nabarmentzekotan ikasleak zergadun bihurtzen direnean nabarmenduko da, nolana.

Gure ustez, kontzientzia zibiko-tributario handiago bat zerga-bilketa handiago bat lortzeko lagungarria da eta, hori progresiboa bada, ekitate handiago bat ekartzen du eta, aldi berean, azken horrek baliabideak modu zuzenago batean birbanatzea eragiten du. Horrenbestez, Gipuzkoako gizon eta emakume gehienei onura ekarriko die.